

GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

Irizpide orokorrak

CRUE mailan adostutakoari jarraituz, atal bakoitzeko guztizko puntuazioaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa.

Horretaz gain bereziki kontuan hartuko da:

- Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da).
- Kontzeptuen argitasuna.
- Idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna.
- Erlazionatzeko gaitasuna.
- Elementuak eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna.
- Erantzun ordenatua egituratzea.
- Testu/mapa/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- Ezagutza-maila.

Irizpide espezifikoak

A MULTZOA (4 puntu)

A1.- Egin ezazu Espainiako biztanleria-dentsitatearen maparen iruzkina. **(4 puntu)**

Puntuazio osoaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan **(0,4 puntu)**:

- Iruzkina koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa.

Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da) **(3,6 puntu)**:

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Biztanleriaren banaketa espaziala aztertzeko biztanle-dentsitatea kalkulatu da; horrek inguru bateko biztanleria eta azalera km^2 -tan elkartzen ditu. Balio moderatua eta Europakoa baino txikiagoa da, baina desoreka espazial garrantzitsuak ezkutatu ditu: dentsitate handiko inguruak (Madril, penintsularen periferia, Kanariar uharteak) eta dentsitate txikiko inguruak (penintsularen barrualdea eta mendi-inguruak ($<10 \text{ bizt/km}^2$)).

- Gaur egungo garapenak (zerbitzuen nagusitasuna, industriaren banaketa espaziala, nekazaritza teknifikatua, garapen endogenoa eta atzerriko immigrazio handiagoa) Madrileko eta Mediterraneoko eta Ebroko ardatzak sendotu ditu, baina deskontzentrazio demografikoa eta ekonomikoa ere gertatu da beti hirien mesedean. Biztanleriaren galera larria gertatzen ari da Gaztela eta Leonen, Gaztela-Mantxan, Aragoi, Extremaduran, Asturiasen edo Galiziaren eta Kantabriaren barnealdeetan.

A2.- Paisaia honen iruzkina egin. (4 puntu)

Puntuazio osoaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan **(0,4 puntu)**:

- Iruzkinaren koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa.

Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da) **(3,6 puntu)**:

Kontsultatu epigrafe honetarako dokumentu hau:

<http://hdl.handle.net/10810/37549>

Diapositibak: [50-51-52](#)

Honako alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

1.- **(0,20)** Zer elementuk osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da naturala edo antropikoa?

- *Paisaia osatzen duten osagaiak bereizten ditu:* abiotiko naturala harkaitzetan, biotiko naturala basoko orbanetan, eta antropikoa belardietan eta baso-landaketetan, antropikoa eraikitzen ari den azpiegituran, baserrian eta bidean.

2.- **(0,40)** Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze-formak ikusten dituzu?

- *Bereizitako erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze-forma, kokapena:* haran estu baten hegala aldapatsuak ikusten dira, eta, atzealdean, kareharrizko mendi bat. Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranak erliebe-unitatearekin bat egiten du. Malda handiko mendi-hegal horiek osatzen dituzten arroak buztintsuak dira, eta, beraz, urarekiko kontaktuan oso hauskorak, eta mugimenduak sor ditzakete mendi-hegaletan.

3.- **(0,40)** Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?

- *Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzorua erabilera mota. Eragile nagusiak aipatzen ditu: kokapenaren arabera baldintza klimatikoak: belardiak eta baso-landarediko orbanak bereiz daitezke, landaketei eta hosto erorkorreko basoei dagozkienak lehen planoan, eta hosto iraunkorreko dagozkienak kareharritzko mendiaren magalean. Baldintza klimatiko atlantikoko eremu bat denez, hostozabalen baso mistoa dagokio landaredi potentzial gisa, haritza (*Quercus robur*) nagusi dela. Baina lurak lehorragoak eta harritsuagoak direnean (kareharritzko hegaletan), artadia (*Quercus ilex*) garatzen da.*

4.- **(0,20)** Urguneak ikusten dira? Zein?

- *Hainbat urgune bereizten ditu: Lur gaineko ur-gorputzik ez da ikusten.*

5.- **(0,40)** Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?

- *Paisaia horretan agertzen diren funtzioak egoki bereizten ditu: abeltzaintzako eta basogintzako landa-inguruneari dagokio, eta komunikazio-azpiegitura batek zeharkatzen du (irudian, oraindik obra-fasean dago) -AHTa-, eta, beraz, zerbitzu-funtzio bat izango du.*

6.- **(2)** Zure ustez paisaia horretan natura-gizartea harremanean lurralde-potentzialtasun edo -arazoren bat hautematen da?

*Atal honetan, ikasleek irudiarekin lotutako beste gai batzuk garatu ahal dituzte, eta horiek ere egokiak izan daitezke. Adibidea:

- *Paisaia horretan adierazten den lurraldearekiko potentzialtasuna edo arazoa egoki ikusten eta azaltzen du: Euskal Herriko isurialde atlantikoko lurraldearen zati handia ezaugarritzen duen **ingurune fisikoaren baldintzatzaile** nagusietako bat jasotzen du irudiak: haran ugariz eta malda handiko hegalek dituzten mendiz osatutako erliebea. Edozein lurralde-proiektu, eta horien artean luzera handiko azpiegitura linealak, baldintzatzen ditu erliebe horrek. Azpiegiturak eraikitze, ingeniari-lan handiak egin behar dira zubibideetan, tuneletan..., bai eta mendi-hegalei eusteko ere (eta egindako lur-erazketen eusteko). Proiektu horiek diseinatu aurreko azterketek kontuan izan behar dituzte, mehatxu bezala, hegaleen ezegonkortasunak, batez ere prezipitazio handien edo etengabeen garaian, gure lurraldeko klimaren beste ezaugarri bat baitira prezipitazioak.*

B MULTZOA (4 puntu)

B1.- Zer ezaugarri dituzte Espainiaren barnealdeko nekazaritza-abeltzaintzako eremuek eta baso-eremuek? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Puntuazio osoaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan **(0,4 puntu)**:

- Idatziaren koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa

Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da): **(3 puntu)**

Honako alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Barnealdeak bi ordokiak eta Ebroko sakonunea hartzen ditu. Erliebea laua da, eta garaiera altua du goi-ordokian; udan prezipitazio gutxi dago, eta urtaroen araberrako kontraste termiko nabarmenak daude.
- Nekazaritza-egiturak ezaugarri hauek ditu:
 - nekazaritzako biztanleria urria eta zahartua, emigrazio handiaren ondorioz.
 - populazioa herriguneetan kontzentratuta dago; Dueroko eta Ebroko ibarretan, herriguneak txikiak eta hurbilak dira, eta, penintsularen hegoaldeko erdian, handiak eta elkarrengandik urrunduak.
 - hainbat tamainatako ustategiak. Dueroko haraneko minifundioa gutxitzen ari da, partzela-kontzentrazioagatik, jarduera uzteagatik eta Ebroko ureztaketa-sistemagatik.
 - Gaztelako, Aragoiko eta Extremadurako lehorreko sail askotan, jabetza handiak dira ezaugarri.
- Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-lurren erabilerak:
 - lehorreko nekazaritza eta nekazaritza ureztatua bereizten dira.
 - lehorrekoa nagusi da ordokiko paramo eta landazabaletan, eta Ebroko ibarreko eremu ureztatu gabeetan. Nekazaritza estentsiboa da eremu irekietan, eta trilogia mediterranea du protagonista: zerealak, mahatsondoa eta olibondoa.
 - zerealak —garagarra gehienbat— nagusi dira Gaztela eta Leonen, eta, gainerakoetan, garrantzi handiagoa hartzen dute olibadiak eta mahastiak.
 - ureztatzeak nekazaritza intentsiboagoa ahalbidetzen du eta ekoizpena dibertsifikatzea ahalbidetzen du: industria-landareak, bazkak, eta frutak eta barazkiak kontserba-industria oparoarentzat.
- Lehorreko lurretako eta dehesetako abeltzaintza garrantzitsua da:

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Gaztelako lehorreko lurretan eta Ebroko haranean, ardi-azienda garrantzitsua da, eta uztondoetan bazkatzen du. Esnetarako behi-aziendak eta txerri-aziendak hazi egin dira etxalde handietan.
- dehesak, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiak, arte- eta artelatz-zura eta ehiza ere garrantzitsuak dira.
- Baso-ustiapena Soria bezalako eremuetan

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia: **(0,6 puntu)**

B2.- Zein izan da turismo-sektorearen bilakaera EAEn? Zer pisu du gaur egun turismo-jarduerak EAEn? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Puntuazio osoaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan **(0,4 puntu)**:

- Idatziaren koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa.

Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da): **(3 puntu)**

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- EAEko turismoa XIX. mendearen amaieran hasi zen, klase dirudunen artean, itsasoko bainuen eta bainuetxeen moda ezarri zenean. Klima-baldintzak.
- Egungo turismoaren potentzialtasunak, eta baliabide natural eta kulturalak, modalitate berriei erantzuna emateko.
- Turismo-eskaintzen ezaugarriak: hoteletako plazak eta hotelez kanpoko eskaintza. Eskariaren ezaugarriak: bisitari motak eta jatorria, urtarotasuna eta egonaldien denbora, jomuga nagusiak...
- Turismo-modalitateak: kostako turismoa; ekoturismoa, landa-turismoa eta kirol-turismoa; kultura-turismoa eta kongresuena, konbentzioena eta negozioetako.
- Ostatu-modalitate berriak eta leku batzuen masifikazioa.

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia. **(0,6 puntu)**

C MULTZOA

C.- Egin testu koherente bat (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituen.

Puntuazio osoaren % 10ek honako hau hartuko du kontuan **(0,2 puntu)**:

- Testuaren koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa.

Eskatutakora egokitzea (azterketako proben balorazioa galderen/zereginen enuntziatura egokitu behar da) **(1,8 puntu)**:

- Aukeratutako kontzeptuen esanahia ulertzen du eta azaltzeko gai da: **(0,6 puntu)**
- Aukeratutako kontzeptu guztiak modu egokian erabili dira geografiako ikuspuntutik, eta sortutako testua norberarena da: **(0,6 puntu)**
- Behar bezala erlazionatzen ditu erabilitako kontzeptu geografikoak: **(0,6 puntu)**

GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

A MULTZOA (4 puntu)

A1.- Egin ezazu Espainiako biztanleria-dentsitatearen maparen iruzkina. **(4 puntu)**

Iruzkina koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa izatea: **(0,4 puntu)**

Gaiaren garapena **(3,6 puntu)**:

- ✓ Biztanleriaren banaketa espaziala aztertzeko biztanle-dentsitatea kalkulatu da; horrek inguru bateko biztanleria eta azalera (km^2 -tan) elkartzen ditu. Balio moderatua eta Europakoa baino txikiagoa da, baina desoreka espazial garrantzitsuak ezkutatu ditu: dentsitate handiko inguruak (Madril, penintsularen periferia, Kanariar uharteak) eta dentsitate txikiko inguruak (penintsularen barrualdea eta mendi-inguruak (< 10 bizt./ km^2)).
- ✓ Gaur egungo garapenak (zerbitzuen nagusitasuna, industriaren banaketa espaziala, nekazaritza teknifikatua, garapen endogenoa eta atzerriko immigrazio handiagoa) Madrilera eta Mediterraneo eta Ebroko ardatzak sendotu ditu, baina deskontzentrazio demografikoa eta ekonomikoa ere gertatu da beti hirien mesedean. Biztanleriaren galera larria gertatzen ari da Gaztela eta Leonen, Gaztela-Mantxan, Aragoi, Extremaduran, Asturiasen edo Galiziaren eta Kantabriaren barnealdeetan.

A2.- Paisaia honen iruzkina egin. **(4 puntu)**

Iruzkina koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa izatea: **(0,4 puntu)**

Iruzkina garapena **(3,6 puntu)**:

<http://hdl.handle.net/10810/37549>

Diapositibak: [50-51-52](#)

1.- **(0,20)** Zer elementu osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da: naturala edo antropikoa?

- *Paisaia osatzen duten osagaiak bereizten ditu:* abiotiko naturala harkaitzetan, biotiko naturala basoko orbanetan, eta antropikoa belardietan eta baso-landaketetan, antropikoa eraikitzen ari den azpiegituran, baserrian eta bidean.

2.- **(0,40)** Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze-formak ikusten dituzu?

- *Bereizitako erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze-forma, kokapena:* haran estu baten hegala aldapatsuak ikusten dira, eta, atzealdean, kareharrizko mendi bat. Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranak erliebe-unitatearekin bat egiten du. Malda handiko mendi-hegala horiek osatzen dituzten arroak buztintsuak dira, eta, beraz, urarekin kontaktuan oso hauskorrak, eta mugimenduak sor ditzakete mendi-hegaletan.

3.- **(0,40)** Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?

- *Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzorua erabilera mota. Eragile nagusiak aipatzen ditu: kokapenaren arabera baldintza klimatikoak:* belardiak eta baso-landarediko orbanak bereiz daitezke, landaketei eta hosto erorkorreko basoei dagozkienak lehen planoan, eta hosto iraunkorrekoiei dagozkienak kareharrizko mendiaren magalean. Baldintza klimatiko atlantikoko eremu bat denez, hostozabalen baso mistoa dagokio landaredi potentzial gisa, haritza (*Quercus robur*) nagusi dela. Baina lurrak lehorragoak eta harritsuagoak direnean (kareharrizko hegaletan), artadia (*Quercus ilex*) garatzen da.

4.- **(0,20)** Urguneak ikusten dira? Zein?

- *Hainbat urgune bereizten ditu:* Lur gaineko ur-gorputzik ez da ikusten.

5.- **(0,40)** Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?

- *Paisaia horretan agertzen diren funtzioak egoki bereizten ditu:* abeltzaintzako eta basogintzako landa-inguruneak dagokio, eta komunikazio-azpiegitura batek zeharkatzen du (irudian, oraindik obra-fasean dago) -AHTa-, eta, beraz, zerbitzu-funtzio bat izango du.

6.- **(2)** Zure ustez paisaia horretan natura-gizartea harremanean lurralde-potentzialtasun edo -arazoren bat hautematen da?

*Atal honetan, ikasleek irudiarekin lotutako beste gai batzuk garatu ahal dituzte, eta horiek ere egokiak izan daitezke. Adibidea:

- *Paisaia horretan adierazten den lurraldearekiko potentzialtasuna edo arazoa egoki ikusten eta azaltzen du:* Euskal Herriko isurialde atlantikoko lurraldearen zati handia ezaugarritzen duen ingurune fisikoaren baldintzatzaile nagusietako bat jasotzen du irudiak: haran ugari eta malda handiko hegala dituzten mendiz osatutako erliebea. Edozein lurralde-proiektu, eta horien artean luzera handiko azpiegitura linealak,

baldintzatzen ditu erliebe horrek. Azpiegiturak eraikitzeko, ingeniari-tza-lan handiak egin behar dira zubibideetan, tuneletan..., bai eta mendi-hegalei eusteko ere (eta egindako lur-erazketei eusteko). Proiektu horiek diseinatu aurreko azterketek kontuan izan behar dituzte, mehatxu bezala, hegaleen ezegonkortasunak, batez ere prezipitazio handien edo etengabeen garaian, gure lurraldeko klimaren beste ezaugarri bat baitira prezipitazioak.

B MULTZOA (4 puntu)

B1.- Zer ezaugarri dituzte Espainiaren barnealdeko nekazaritza-abeltzaintzako eremuek eta baso-eremuek? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,4 puntu)**

Gaiaren garapena **(3 puntu)**:

- ✓ Barnealdeak bi ordokiak eta Ebroko sakonunea hartzen ditu. Erliebea laua da, eta garaiera altua du goi-ordokian; udan prezipitazio gutxi dago, eta urtaroen araberrako kontraste termiko nabarmenak daude.
- ✓ Nekazaritza-egiturak ezaugarri hauek ditu:
 - nekazaritzako biztanleria urria eta zahartua, emigrazio handiaren ondorioz.
 - populazioa herriguneetan kontzentratuta dago; Dueroko eta Ebroko ibarretan, herriguneak txikiak eta hurbilak dira, eta, penintsularen hegoaldeko erdian, handiak eta elkarrengandik urrunduak.
 - hainbat tamainatako ustategiak. Dueroko haraneko minifundioa gutxitzen ari da, partzela-kontzentrazioagatik, jarduera uzteagatik eta Ebroko ureztake-sistemagatik.
 - Gaztelako, Aragoiko eta Extremadurako lehorreko sail askotan, jabetza handiak dira ezaugarriak.
- ✓ Nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-lurren erabilerak:
 - lehorreko nekazaritza eta nekazaritza ureztatua bereizten dira.
 - lehorrekoa nagusi da ordokiko paramo eta landazabaletan, eta Ebroko ibarreko eremu ureztatu gabeetan. Nekazaritza estentsiboa da eremu irekietan, eta trilogia mediterranea du protagonista: zerealak, mahatsondoa eta olibondoa.
 - zerealak —garagarra gehienbat— nagusi dira Gaztela eta Leonen, eta, gainerakoetan, garrantzi handiagoa hartzen dute olibadiak eta mahastiak.

- ureztatzeak nekazaritza intentsiboagoa ahalbidetzen du eta ekoizpena dibertsifikatzea ahalbidetzen du: industria-landareak, bazkak, eta frutak eta barazkiak kontserba-industria oparoarentzat.
- ✓ Lehorreko lurretako eta dehesetako abeltzaintza garrantzitsua da:
 - Gaztelako lehorreko lurretan eta Ebroko haranean, ardi-azienda garrantzitsua da, eta uztondoetan bazkatzen du. Esnetarako behi-aziendak eta txerri-aziendak hazi egin dira etxalde handietan.
 - dehesak, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategiak, arte- eta artelatz-zura eta ehiza ere garrantzitsuak dira.
- ✓ Baso-ustiapena Soria bezalako eremuetan

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia: **(0,6 puntu)**

B2.- Zein izan da turismo-sektorearen bilakaera EAEn? Zer pisu du gaur egun turismo-jarduerak EAEn? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,4 puntu)**

Gaiaren garapena **(3 puntu)**:

- ✓ EAEko turismoa XIX. mendearen amaieran hasi zen, klase dirudunen artean, itsasoko bainuen eta bainuetxeen moda ezarri zenean. Klima-baldintzak. Egungo turismoaren potentzialtasunak, eta baliabide natural eta kulturalak, modalitate berriei erantzuna emateko. Turismo-eskaintzen ezaugarriak: hoteletako plazak eta hotelez kanpoko eskaintza. Eskariaren ezaugarriak: bisitari motak eta jatorria, urtarotasuna eta egonaldien denbora, jomuga nagusiak...
- ✓ Turismo-modalitateak: kostako turismoa; ekoturismoa, landa-turismoa eta kirol-turismoa; kultura-turismoa eta kongresuena, konbentzioena eta negozioetakoa.
- ✓ Ostatu-modalitate berriak eta leku batzuen masifikazioa.

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia: **(0,6 puntu)**

C MULTZOA (2 puntu)

C.- Egin testu koherente bat (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituenak.

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,2 puntu)**

Sortutako testuaren garapena **(1,8 puntu)**:

Edukiak era askotakoak dira, eta aukera guztiak zuzenak izan daitezke.